



**OÑATI**  
dabilen herria



OÑATIKO UDALA

## ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengo agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakunde Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

Onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

**Erabaki dut:**

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2021eko irailaren 27an, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrenetan. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2021-07-22ko ohiko osoko bilkuraren akta, (7.2021).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Musika banda eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena onartzea, Kulturako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko uztailaren 20an.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Hiri Antolaketarako Arauen aldaketa puntuala hasiera batean onartzea, Lurzoru Urbanizaezineko Babes Bereziko- eta Nekazaritza eta Abelazkuntzarako Zonetan erauzketa erabileraren inguruan, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 6an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 7an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrei zuzendutako diruz lagundutako erosketa bonoen oinarri arautzaileen eta 2021eko deialdiaren onarpena, Sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 15ean.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gure Bazterrak kultur elkartearen eskaera Erreusak egitasmoko lanak egiteko Olalan gunea erabiltzeko, Sozioekonomia eta turismo informazio batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 15ean.

7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Eskola Kirola eta Hezkuntza elkarte eta Oñatiko Udalaren arteko hitzarmena eta diru-laguntza izendun eta zuzena, Kirol Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 13an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Gi-2630 eta Gi-3591 errepideen bidegurutzean Lezesarri auzorako oinezkoendako ibilbidea egokitzeko proiektua onura publikokotzat deklaratzeko eta desjabetze ondorioetarako ondasun eta eskubideen eta horien titularren zerrendari hasierako onespena ematea, Ingurumen Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko irailaren 16an.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. Uztailaren 19tik irailaren 22a bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 784 zenbakitik 953 zenbakira.
12. Galderak eta eskaerak.

Jakinaraz bekie berehala Udaltzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

2

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2021eko irailaren 22an

Alkateak

Izaro Elorza Arregui